

## **1997KO ABENDUAREN 15EKO BILKURA BEREZIA**

Lizartzan, mila bederatzehun eta laurogeitamazazpiko abenduaren hamabostean, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala; Ramon Bengoetxea Altuna, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz, ez dira agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia, Biltzar Berezian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

### **1.- KREDITU-GAIKUNTZEN ERREGIMENAREN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 1 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Lizartzako Udal honen 1997ko Aurrekontuaren barnean Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez izapidetzen den Kreditu-Aldaketarako espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri ondoren, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion indarreko araudiari egokitzen zaiola eta, hortaz, bere aldeko txostena ematen baitu.

Onespena proposamena formulatzen duen Ogasun Batzordeak emandako aldeko irizpena irakurririk.

ERABAKI DU:

- 1.- Kreditu-Gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea, 21.342.875,- pezetako zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera-orriskan ageri den kontzeptu eta partiden xehekapen berarekin.

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

3.- Hurrengo Udal Batzarrean, Udal Batzarrari ebazpen honen berri ematea.

## 2.- TRANSFERENTZIA BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU-ALDAKETARAKO 2 ZK. ESPEDIENTEA ONESTEKO PROPOSAMENA

Udal honen Aurrekontua afektatzen duen Gastuen aurrekontu-partiden arteko kreditu-transferentziaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako Espedientearen berri eman ondoren.

Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaión araudiari egokitzen zaiola, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 29. artikulua eta Toki Entitateen Aurrekontu Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 34. artikulua ezarritako beharkizunei egokitzen zaiela.

Era berean, Idazkari-Kontuhartzaileak jaulkitako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaión araudiari egokitzen zaiola, zehazki Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko otsailaren 26ko 4/1991 Foru Arauaren 29. artikulua eta Toki Entitateen Aurrekontu-Erregelamendua onesten duen abenduaren 1eko 96/1992 Foru Dekretuaren 34. artikulua ezarritako beharkizunei egokitzen zaiela.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatzaileak formulatutako aldeko txostena eta onespina proposamena irakurri da.

Dagokion eztabaidaren ondoren, aho batez erabaki da:

1.- Kreditu-Transferentzien erregimenaren bidez egin beharreko Kreditu-Aldaketarako espedientea onestea.

Transferitzen diren kredituak biltzen dituzten  
Gastuen Partidak (Bajak)

<b>Partida</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Hasierako Kreditua</b>	<b>Gutxipena</b>	<b>Eraitzazko Kreditua</b>
160.04	Elkarkidetza	122.373	1.610	120.763
160.05	Asistentzia Mediku	128.100	10.185	117.915
162.01	Langileen Kurtsiloak	50.000	50.000	-----
162.01	Langileen Kurtsiloak	25.000	20.000	5.000
202.01	Makinariaren Alkilerria	50.000	50.000	-----
210.01	Ur tuberi, deposituen Mantenimendua	350.000	75.566	274.434
210.01	Bestelako Mantenimendua	2.538.546	356.048	2.182.498
210.01	Kamio, e.a. Mantenimendua	150.000	150.000	-----
211.01	Kontsultako Mantenimendua	100.000	29.299	70.701
211.01	Kaleko Argi Indarraren Mantenimendua	250.000	32.784	217.216
211.01	Frontoiaren Mantenimendua	200.000	154.600	45.400
211.01	Bestelako Mantenimendua	650.000	401.965	248.035
213.01	Land-Roverraren Mantenimendua	50.000	19.640	30.360
215.01	Bulego Makinen Mantenimendua	350.000	389.906	260.094
220.02	Harpidetzak e.a.	265.000	1.516	263.484
220.03	Informatikako Materiala	100.000	6.638	23.362
221.01	Udaletxeko Argi Indarra	350.000	103.127	246.873
221.01	Kontsultako Argi Indarra	50.000	27.268	22.732
221.01	Eskoletako Argi Indarra	100.000	48.494	51.506
221.01	Kaleko Argi Indarra	950.000	13.987	936.013
221.01	Frontoiako Argi Indarra	300.000	111.327	188.673
221.04	Kalefaziointzako Gasoile	350.000	52.892	297.108
221.04	Kontsultako Gasoile	100.000	8.069	91.931
221.04	Land-Rover Gasoile	50.000	14.000	36.000

222.01	Udaletxeko Telefonoa	250.000	57.121	192.879
222.01	Kontsultako Telefonoa	75.000	30.156	44.844
222.01	Eskoletako Telefonoa	75.000	16.287	58.713
222.01	Trm. Telefonoa	125.000	52.372	72.628
222.02	Posta bidezko Komunikazioak	50.000	31.682	18.318
222.04	Fax.eko Telefonoa	100.000	53.623	46.377
222.05	Sare Konmutatua	500.000	133.288	366.712
224.01	Eraikuntzen Asegurua	300.000	12.780	287.220
224.02	Land-Roverraren Asegurua	70.000	12.905	57.095
225.01	Kontribuzioak e.a.	30.000	30.000	-----
226.01	Publizitatea e.a.	100.000	2.891	97.109
226.04	Asesoritza Juridikoa	1.500.000	21.828	1.478.172
226.04	Arkitektoa	850.000	58.547	491.453
226.99	Bestelako Gastu Orokorrak	902.180	35.438	866.742
227.01	Zabor Bilketa	1.495.434	19.197	1.476.237
227.07	Proiektuak	1.000.000	420.000	580.000
230.01	Dietak	50.000	38.728	11.272
230.01	Dietak	25.000	25.000	-----
230.01	Dietak	25.000	25.000	-----
231.01	Udalkideen Dietak	520.000	86.505	433.495
330.01	Maileguen Interesak	2.619.743	184.974	2.424.769
421.01	Ur Kontsortzioa	1.353.419	88.543	1.264.876
421.03	Tolosaldea Bus	379.859	2.013	377.846
430.01	Gizarte Ongizatea	1.000.000	225.449	774.551
430.01	Hezkuntza Batzordea	300.000	38.314	261.686
430.02	Kultura Batzordea	800.000	375.000	425.000
430.03	Euskera Batzordea	50.000	3.675	46.325
481.01	Drogomenpekotasun Zerbitzua	29.038	29.038	-----
481.01	Liburutegia	310.650	35.553	276.777
481.01	Erakundeei Laguntzak	200.000	31.000	169.000
GUZTIRA .....			4.005.828	

<b>Partida</b>	<b>Izendapena</b>	<b>Hasierako Kreditua</b>	<b>Igoera</b>	<b>Emaizazko Kreditua</b>
481.01	Liburutegia	310.650	1.650	312.300
680.01	3. Area	14.560.519	3.929.952	18.490.471
933.02	Maileguen Amortizazioa	2.622.758	74.196	2.696.954
GUZTIRA .....			4.005.828	

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da onetsitako Kreditu-Aldaketa Fondoan Kontuhartzailletza Zerbitzuek Kontabilitatean berehalako ondorioekin isla dezaten.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko bederatzit'erdiak direnean.